**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA (28.04.08)**

LEHENDAKARIORDEA
KELTSE EIGUREN and, Ingurumen Zinegotzia

JOSEBA ARREGI jn, Hirigintza Zinegotzia

IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

INGURUMEN TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

INGURUMEN AHOLKULARIA:
JULEN REKONDO jn. (Ingurune)

ETORRI DIRENAK:

PATXI DIAZ jn. (Ibilbide Ekologikoak)
PEDRO BARRENETXEA jn. (Aixerrota institutuko irakaslea)
PEDRO ORTUETA jn. (Ekologistak Martxan)
JOSE ALMEIDA jn. (Getxo Enpresa eta Merkataritza)
MAXIMO GÓMEZ jn. (Basozaleak), EMILIO MARTÍNEZ jaunak lagunduta (Basozaleak)
CARLOS ARANA jn. (FEGEVOL), JOSE LUIS GONZALEZ jaunak lagunduta
KOLDO NABASKUES jn. (URKOA kontsumitzaileen elkartea).
DIMAS RAMOS jn. (Kirol elkarteak)
SILVIA ZALBIDEA and. (BIZKEL ezinduen elkartea)
M. ANTONIA ANTON and. (RODA emakumeen elkartea), ANA PASCUAL andreak lagunduta.

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE (28.04.08)**

VICEPRESIDENTE
Dña. KELTSE EIGUREN, Concejala de Medio Ambiente

D. JOSEBA ARREGI,
Concejal de Urbanismo

SECRETARIA:
Dª. ARANTZA CABEZA

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

CONSULTOR MEDIOAMBIENTAL:
D. JULEN REKONDO (Ingurune)

ASISTENTES:

D. PATXI DIAZ (Itinerarios Ecológicos)
D. PEDRO BARRENETXEA (Profesor del Instituto de Aixerrota)
D. PEDRO ORTUETA (Ekologistak Martxan)
D. JOSE ALMEIDA (Getxo Empresarial y Comercial)
D. MÁXIMO GÓMEZ (Basozaleak), acompañado de D. EMILIO MARTÍNEZ (Basozaleak)
D. CARLOS ARANA (FEGEVOL), acompañado de D. JOSÉ LUIS GONZALEZ D. KOLDO NABASKUES (Asociación de Consumidores URKOA).
D. DIMAS RAMOS (Asociaciones Deportivas)
Dª. SILVIA ZALBIDEA (Asociación de Discapacitados BIZKEL)
Dª. Mª ANTONIA ANTON (Asociación de Mujeres RODA), acompañada de Dª. ANA PASCUAL.

XABIER BUENETXEA jaunak jakinarazi du ez zuela etortzerik izango, arrazoi pertsonalak direla eta. CARLOS MATA DE LANIUS jauna eta JOSE M. GOROSTIAGA jauna (unibertsitateko irakaslea), berriz, ez dira etorri, eta ez dira desenkusatu. Bestalde, Carmen Estrada Itxasargia elkarteko ordezkariarekin ezin izan dute zuzenean hitz egin, eta elkarteak ere ez du erantzun.

Excusa su no asistencia D. XABIER BUENETXEA por motivos personales, mientras que D. CARLOS MATA DE LANIUS y D. JOSE Mª GOROSTIAGA (Profesor de Universidad) no acuden, desconociéndose los motivos.. Por otra parte, con Carmen Estrada, representante de Itxasargia, no se ha podido hablar directamente ni se ha obtenido respuesta por parte de la asociación.

Getxon, 2008ko apirilaren 28an, arratsaldeko zazpietan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, letra larriz adierazitako kideen parte-hartzearekin.

En Getxo, a 28 de abril de 2008. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

Gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin diote, eta honako emaitza hau izan du:

Se aborda el Orden del Día, con el siguiente resultado:

## GAI-ZERRENDA

**1. Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa eratzea eta osatzea 2008-2011 aldirako.**

Ingurumeneko zinegotzia den Keltse Eiguren andreak forora etorritakoak agurtu ditu, eta adierazi du Imanol Landa alkate jaunak ez duela bilerara etortzerik izan; hasieran etortzekoa zela esan du, baina azkenean ezin izan duela, ezusteko bat sortu zaiolako. Adierazi du bileran zehar Joseba Arregui Hirigintza zinegotzi jauna etorriko dela, Bidegorrien Plan Bereziaren Aurrerapena azaltzera. Gero, foroko idazkari Arantza Cabeza andreari eman dio hitza, eta foroak zein funtzio dituen irakurri du hark, araudian jasotakoaren arabera. Horren ostean, foroa osatzen duten kideen atala irakurri du.

Araudiak jasotzen duen moduan, erakunde ekologista edo natura-elkarteren bat ordezkatzen duten 3 pertsona daude, honako hauexek hain zuzen:

Ekologistak Martxan, Pedro Ortueta jaunak ordezkatua.
Basozaleak, Maximo Gómez jaunak

## ORDEN DEL DÍA

**1. Constitución y composición del Foro Local de Medio Ambiente de Getxo para el período 2008-2011.**

La concejala de Medio Ambiente, Dña. Keltse Eiguren, saluda a los asistentes a este foro y excusa la asistencia del Sr. Alcalde, D. Imanol Landa, que en principio iba a acudir pero no le ha sido posible, debido a un imprevisto, e informa que en el transcurso de la reunión vendrá D. Joseba Arregui, concejal de Urbanismo, para explicar el Avance del Plan Especial de Bidegorris. Acto seguido pasa la palabra a la Secretaria del Foro, Dña. Arantza Cabeza, que da lectura de las funciones del Foro, recogidas en el Reglamento, posteriormente da lectura de los componentes del Foro.

Tal y como recoge el Reglamento hay 3 personas que representen a alguna organización ecologista y colectivo naturalístico, que son las siguientes:

- Ekologistak Martxan, representada por D. Pedro Ortueta.
-Basozaleak, representada por D. Máximo

ordezkatua. Emilio Martínez jaunarekin etorri da.
Lanius. Erakunde horren ordezkaria, Carlos Mata jauna, ez da etorri, eta ez du adierazi zergatik.

Herriko enpresa-sarearen bi ordezkari. Pertsona bakarra etorri da, Jose Almeida jauna, Getxo Enpresa eta Merkataritza elkartearen ordezkari gisa. Beste ordezkaria ez da behin ere izendatu.
Kultura, kirol edo gizarte elkarteetako hiru pertsona. Honako hauexek dira:
Carlos Arana jauna, Fegevolen ordezkari gisa. Jose Luis González jaunak lagundu du.
Dimas Ramos jauna, kirol elkarteen ordezkari gisa.
Itxasargia. Elkarte honekin ezin izan dute zuzenean hitz egin, baina posta elektroniko bidez bidali zaie deialdia.

Getxoko Eskola Agenda 21eko Irakasleen Koordinakundean ordezkatuta dauden ikastetxeetako bi ordezkari.
Pedro Barrenetxea jn. (Aixerrota).
Beste ordezkaria Getxoko Eskola Agenda 21eko Irakasleen Koordinakundean izendatuko dute.

Kontsumitzaileen elkarteren bateko ordezkari bat.
Koldo Nabaskues jauna, URKOA elkartekoa.

Ezgaituen elkarteren bateko kide bat.
Silvia Zalbidea andrea, BIZKELekoa.

Unibertsitatearen munduko kide bat.
Jose M. Gorostiaga jauna. Abisatuta zegoen, baina ez da etorri, eta ez du adierazi zergatik.

Ingurumenaren arloan prestigio handia duten bi pertsona:
Patxi Díaz jauna. (Ibilbide Ekologikoak)
Xabier Buenetxea jauna. Ez du bilerara

Gómez, que acude acompañado de D. Emilio Martínez.
- Lanius. Su representante, D. Carlos Mata, no acude, sin conocer las razones de ello.

Dos personas representantes del tejido empresarial del municipio. Sólo acude 1 persona, D. José Almeida, en representación de Getxo Empresarial y Comercial. El otro representante nunca se ha designado.
Tres personas que pertenezcan a asociaciones culturales, deportivas o sociales. Son las siguientes:
- D. Carlos Arana, en representación de Fegevol, que acude acompañado de José Luis González.
- D. Dimas Ramos. En representación de las Asociaciones Deportivas.
-Itxasargia. No se ha podido hablar directamente con este colectivo, aunque se les ha enviado la convocatoria por correo electrónico.
Dos representantes de centros escolares representados en la Coordinadora de profesores de la Agenda Escolar 21 de Getxo.
- D. Pedro Barrenetxea. (Aixerrota).
- El otro representante se designará en la Coordinadora de Profesores de la Agenda Escolar 21 de Getxo.
Una persona representante de alguna asociación de consumidores.
- D. Koldo Nabaskues, de la Asociación URKOA.

Una persona que pertenezca a alguna asociación de discapacitados.
- Dña. Silvia Zalbidea de BIZKEL.

Una persona que pertenezca al mundo de la Universidad:
- D. José Mª Gorostiaga. No acude, aunque estaba avisado, sin conocer los motivos de ello.
Dos personas de reconocido prestigio en el campo del Medio Ambiente:
- D. Patxi Díaz (Itinerarios Ecológicos)
- D. Xabier Buenetxea. No ha podido

etortzerik izan, arrazoi pertsonalak direla eta.

Udal Erregistroan inskribatutako emakumeen elkarteak ordezkatzen dituzten bi pertsona.

Roda elkartea. M. Antonia Antón andrea etorri da, Ana Pascual andreak lagunduta.

Kide guztiak izendatu ostean, eratutzat jo da Ingurumeneko Tokiko Foroa, 2008-2011 aldirako.

**2. Foroaren 2008rako Laneko Plana (helburuak, funtzionamendu-irizpideak, jorratu beharreko gaiak, plangintza eta abar). Ordezkariek egiten dituzten proposamenak.**

Ingurune SMko asistentzia teknikoko Julen Rekondo jaunak Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroaren 2008rako laneko planaren proposamena azaldu du.

Laneko plana dela eta, adierazi dute bilera egunez alda ote daitekeen. Hain zuzen ere, bilerak hilabete bakoitzeko laugarren asteazkenean egitekotan gelditu ziren, udan izan ezik. Azkenean, denen artean erabaki dute bilerak hilabete bakoitzeko laugarren asteartean egitea.

Bestalde, adierazi dute beharrezkoa dela bilera baten eta bestearen artean informazio-jario handiagoa izatea. Horrekin bat etorri dira denak, eta adierazi dute foroak egiten dituen bileren artean norbaitek edozer gauzari buruzko informazioa eman nahi badu horretarako aukera izango duela Julen Rekondo jaunari (j.rekondo@euskalnet.net) bere proposamen edo informazioarekin posta elektroniko bat bidalita, eta hark bidaliko diela gainerako kideei.

Jose Almeida jaunak adierazi du ezusteko handia hartu duela Udalaren Ingurume Arloak egun hauetan atera duen kanpainaren berri jakin duenean. Izan ere, “Birziklatuz... irabazi” kanpainaren

acudir por motivos personales.

Dos personas que representen al colectivo de las Asociaciones de Mujeres inscritas en el Registro Municipal:

-Asociación Roda. Acude Dña. Mª Antonia Anton acompañada de Dña. Ana Pascual.

Una vez nombrados todos los miembros, se declara constituidao el Foro Local de Medio Ambiente, para el período 2008-.2011

**2. Plan de Trabajo del Foro para 2008 (Objetivos, criterios de funcionamiento, temas a tratar, planificación, etc.). Propuestas que se planteen por parte de los distintos representantes.**

D. Julen Rekondo, de la Asistencia técnica Ingurune S.L., presenta la propuesta de Plan de Trabajo del Foro Local de Medio Ambiente de Getxo para 2008.

Sobre el Plan de Trabajo, se comenta si hay posibilidad de cambiar de día de reunión, en principio fijada los cuartos miércoles de cada mes, excepto la época estival. Finalmente, se decide entre todos que las reuniones se celebren los cuartos martes de cada mes.

Por otra parte, se plantea la necesidad de que haya mayor fluidez en la información entre reunión y reunión. En esto hay coincidencia, y se comenta que entre cada reunión del foro, cada miembro que quiera informar de lo que sea lo podrá hacer enviando por correo electrónico su propuesta o información a D. Julen Rekondo (j.rekondo@euskalnet.net), remitiéndolo éste al resto de los componentes.

D. Jose Almeida quiere hacer constar que, con gran sorpresa han tenido conocimiento de la campaña que el Área de Medio Ambiente del Ayuntamiento ha lanzado estos días: “si reciclas…ganas” con motivo

logotipoa daramaten poltsak atera dira kalera, baina saltoki handien bidez banatu dira, saltoki txikiak kontuan hartu gabe, saltoki txikiak herriarentzat funtsezkoak badira ere.
Adierazi diote kanpainaren enpresa esleipenduna harremanetan jarri zela saltoki handi eta txikiekin, eta denak ez zeudela parte hartzeko prest; nolanahi ere, parte hartu du kate handietakoa ez den saltoki batek ere.

Keltse Eigurenek adierazi du hurrengo kanpainetarako kontuan hartuko dituztela bere kolaborazioa eta ekarpenak, bai eta foroko gainerako kideenak ere, baina oraingo honetan ez dela izan horretarako astirik.
Pedro Barrenechea jaunak adierazi du hondakinak birziklatzeko kanpainarako interesgarria izango zela baldin eta ikastetxeak kontuan hartu izan balituzte kanpaina hori zabaltzeko plataforma gisa. Erantzun diote ados daudela, baina oraingo honetan foroa ez zela oraindik funtzionatzen ari.
Bestalde, Koldo Nabaskues jaunak adierazi du kontuan hartzekoa dela URKOA kontsumitzaileen elkartea ere, gisa honetako informazio eta kanpainak elkarteko afiliatu edo bazkide guztiei helarazi ahal zaizkiela, hiru hilabetean behin argitaratzen duten aldizkariaren bidez.
Azkenik, Pedro Ortuetak esan du informazioa oinarrizkoa dela, baina ez proiektuak bukatuta daudenean, baizik eta funtsezkoa dela ekimenen berri izatea, ingurumenean inpaktu handiena duten ekimen horiexena, jakina, baldin eta asmoa bada foroa "parte hartzeko" organoa izatea eta ez soilik "informatzeko" gune izatea.

**3. Kanpaina hauei buruzko informazioa, eztabaida eta:**
**- Aste Berdea**
**- Mugikortasun Astea**
**Halaber, Bidegorrien Plan Bereziaren Aurrerapenari buruzko informazioa,**

de la puesta en circulación de bolsas con el logotipo de la campaña, distribuidas a través de grandes comercios sin contar con la colaboración del pequeño comercio, parte fundamental del municipio.
Se le comenta que, la empresa adjudicataria de la campaña se puso en contacto con grandes y pequeños establecimientos y que no todos estuvieron dispuestos a colaboras, de todos modos, sí hay algún comercio que no pertenece a grandes cadenas que sí ha colaborado;
Keltse Eiguren le comenta que se tendrá en cuanta para próximas campañas su colaboración y aportaciones, así como del resto de los miembros del Foro, pero en esta ocasión no había tiempo material para ello.
D. Pedro Barrenetxea comenta que para la campaña sobre Reciclaje de Residuos hubiera sido interesante haber contado con los centros educativos como plataforma de difusión de dicha campaña. Se le responde que se está de acuerdo, lo que pasa que en esta ocasión todavía no estaba funcionando el Foro.
Así mismo, D. Koldo Nabaskues señala que también se cuente con la Asociación de Consumidores URKOA, que este tipo de informaciones y campañas se puede hacer llegar a todos sus afiliados o socios, a través de la revista trimestral que publican.

Pedro Ortueta apunta finalmente que la información es básica pero no cuando los proyectos están ya acabados sino que es fundamental estar al tanto de las iniciativas, aquellas que tengan mayor impacto medioambiental, claro está, si se pretende que el Foro sea un órgano de "participación" y no meramente de "información".

**3.Información sobre las siguientes campañas para su discusión y campañas:**
**- Aste Berdea**
**- Semana de la Movilidad.**
**Asimismo, información, preguntas y**

**galderak eta argibideak.**

Ingurumen zinegotzi Keltse Eiguren andreak jakinarazi du joan den urteetan bezala Mugikortasun Astea antolatuko dutela datorren irailaren 22 ingururako. Adierazi du Udalaren asmoa dela Areeta eta Algortako kale batzuk zirkulaziorako ixtea, oinezkoak izan daitezen, urtean behin gutxienez, hirigune horretan jaun eta jabe. Horretarako, hainbat jarduera antolatuko dituzte (kirola, jaialdiak, jolasak eta abar).
Alde horretatik, gune horietan zirkulaziorik izango ez denez, foroko kideen laguntza eskatu dute, jarduerak eta proposamenak plantea ditzaten.

Jose Almeida jauna ez da azaldu hirigunea ixtearen oso aldeko; izan ere, merkataritzari, herritarrei eta beste hainbati eragozpenak sortzen dizkie horrek, eta adierazi du Mugikortasun Astea antolatzen dutela Euskal Herriko beste hainbat herritan ere eta ez dituztela horregatik kaleak ixten. Iaz foroan eskatu zuen bezala, kaleak ixten ez dituzten udalerri horien zerrenda eskatu dio Udal Arloari. Jose Ateka jaunak erantzun dio berak uste duenez Mugikortasun Astean parte hartzen duten herri guztietan ixten dutela kaleren bat, baina informatuko dela. Jose Almeidak esan du ekarriko dutela forora aste horri buruzko proposamenen bat, kaleak itxi behar ez izateko.
Uste du ateak itxiz ez dela lortzen hain justu herritarrak hirigunera erakartzea, merkataritza desagertzen ari den gune horrexetara erakartzea alegia, baizik eta bidea autoentzat itxita ez dagoen beste toki batzuetara mugiaraziko duela horrek jendea, eta merkataritza-gune hurbilenekoetara joango direla.
Dimas Ramos jaunak proposatu du askotariko jarduerak antola ditzaketela aldez aurretik ze kale itxiko dituzten jakinez gero, eta talde, klub eta elkarteen laguntza izan.
Gero, galdetu du ona ote den urtean behin

**aclaraciones sobre el Avance del Plan Especial de Bidegorris.**

La concejala de Medio Ambiente, Dña. Keltse Eiguren informa que se va a celebrar como en anteriores ediciones la Semana de la Movilidad alrededor del próximo 22 de septiembre. Comenta que es intención del Ayuntamiento cerrar al tráfico algunas calles de Las Arenas y Algorta, para que el peatón sea dueño al menos un día al año de ese espacio urbano, organizándose diversas actividades (deportivas, festivas, lúdicas, etc.),..
En ese sentido dado que esas zonas van a estar libres de tráfico, se solicita la colaboración de los miembros del Foro para plantear actividades y propuestas.

D. José Almeida no se muestra muy partidario del cierre del centro urbano, ya que se ocasionan diversas molestias al comercio, a la ciudadanía, etc., y señala que hay localidades en el País Vasco donde se celebra la Semana de la Movilidad pero donde no se cierran calles. Como planteó el año pasado en el Foro, pide al Area Municipal la lista de estos municipios donde no se cierran calles. D. José Ateka le responde que tiene entendido que en todos los municipios que participan en la Semana de la Movilidad se cierra alguna calle, pero que ya se informará. José Almeida comenta que traerán una propuesta al Foro sobre dicha Semana, sin cerrar calles.
Opina que, cerrando las calles lo que se provoca no es precisamente acercar al ciudadano al centro, donde el comercio está desapareciendo, sino desplazar a la gente hacia otros lugares dónde no tienen cortado el acceso con su coche; se dirigen a los centros comerciales mas cercanos
D. Dimas Ramos plantea que sabiendo con antelación qué calles se van a cerrar, se pueden organizar con tiempo distintas actividades, y contar con la colaboración de grupos, clubs y asociaciones
Seguidamente pone sobre la mesa la pregunta de si es bueno cerrar las calles un día al año para los niños y al día siguiente

kaleak haurrentzat ixtea eta hurrengo egunean ostera itxita egotea: “Haurrak ez dira heldu txikiak”.

de nuevo, están cerradas: “ un niño no es un adulto pequeño”

Patxi Díaz jaunak adierazi du ados dagoela kaleak ixtearekin, nahiz eta urtean behin baino ez izan, eta merkataritzak dituen arazoak ez direla inola ere Mugikortasun Astearen ondorio, baizik eta saltoki handiak eta gure gizartean nagusitzen ari den kontsumo-eredua zabaltzearen ondorio direla.

D. Patxi Díaz señala que está de acuerdo en que se cierren calles, aunque solo sea un día al año y que los problemas que tiene el comercio no se deben en absoluto a la Semana de la Movilidad, sino que el problema viene por la proliferación de grandes superficies y el modelo de consumo que va imperando en nuestra sociedad.

Gogoan izan behar da nolako garrantzia duten saltoki txikiek hiri iraunkorraren ereduan, eta sustatu ere egin behar dira.

Hay que recordar y potenciar la importancia del pequeño comercio en un modelo de ciudad sostenible.

Koldo Nabaskues jaunak, esandako guztiaren ondoren, proposatu du ez dituztela kaleak itxi behar, baizik eta saltoki handietarako sarbidea itxi behar dutela, esate baterako txatar-autoekin.

D. Koldo Nabaskues propone tras todo lo dicho que, lo que hay que cerrar no son las calles sino los accesos a las grandes superficies con coches de chatarra por ejemplo

Basozaleak elkarteko Emilio Martinez jaunak adierazi du bideak itxita eragozpen handiak sortzen zaizkiela kale horietako bizilagunei, eta horiek ere kontuan hartu behar dituztela, urtez urte egiten baita.

D. Emilio Martinez, de Basozaleak apunta las incomodidades que sufren con esos cortes, los vecinos de las calles afectadas a los que también hay que tener en cuenta dado que es año tras año.

Patxi Díazek gogoratu du itxi izan dituztela gerora oinezkoentzako bihurtu diren kaleak, esate baterako Alde Zaharrean, eta orain ez dagoela arazorik.

Patxi Díaz recuerda que se han cerrado calles que después se han hecho peatonales, por ejemplo en el Casco Viejo, y ahora no hay problema.

**Aste Berdea**

**Aste Berdea**

Ingurumen zinegotzi Keltse Eiguren andreak Aste Berderako antolatu diren jardueren berri eman du. Aste hori ekainaren 5ean Ingurumenaren Munduko Eguna dela-eta antolatu dute. Hauexek dira jarduerak:
Argazki lehiaketa.
Eskolako idazlan lehiaketa.
Landare banaketa.
Hasiera behintzat, ondo hartuko dute edozein ideia eta ekarpen.

Dña. Keltse Eiguren, concejala de Medio Ambiente, informa de las actividades que se ha previsto para la Aste Berdea que se celebra coincidiendo con el Día Mundial del Medio Ambiente, el 5 de junio, son las siguientes:
- Concurso de fotografía.
- Concurso de redacción escolar.
- Reparto de plantas

En principio cualquier idea y aportación será bien recibida

Almeida jaunak kanpainara bideratutako aurrekontuari buruz galdetu du; adierazi diote 7 mila euro inguru dela aurrekontua.

El Sr. Almeida se interesa por el presupuesto destinado a la campaña; se le indica que alrededor de 7 mil €uros.

Basozaleak elkarteak informatu du urtean

Por parte de Basozaleak, se informa que

bi erakusketa egiten dituztela: botanikari buruzkoa bata, eta mikologiari buruzkoa bestea. Maiatzaren 17tik 30era Getxoko XI. Jardunaldi Botanikoak egingo dituzte, eta Aste Berdearen barruan sar daitezkeela proposatu du.

suelen realizar dos exposiciones al año: de Botánica y Micología. Y que del 17 al 30 de mayo se va a celebrar las XI Jornadas Botánicas de Getxo plantendo la posibilidad de poderlas integrar en la Aste Berdea.

Patxi Díaz jaunak adierazi du Galea eta Bolue inguruan lanean ari dela Udala eta toki horietarako bisitak antola daitezkeela, herritarrek ezagut ditzaten eta jakin dezaten zer egiten ari diren eta zer dagoen interes ekologiko handia duten natura-gune horietan.
Pedro Barrenetxeak iradoki du Inguru-Gela erabil daitekeela ate irekien jardunaldiak edo beste jarduera batzuk antolatzeko.
Koldo Nabaskuesek uste du Evek izan ditzakeela egun horietan erakusteko moduko erakusketa ibiltariak.

D. Patxi Díaz comenta que el Ayuntamiento viene trabajando en la zona de La Galea y Bolue y se podrían organizar visitas a estos lugares para que la ciudadanía los conozca y sepan lo que se está haciendo y con qué se cuenta en esos espacios naturalísticos y de gran interés ecológico.
Pedro Barrenetxea sugiere que la Inguru-Gela se utilice para organizar jornadas de puertas abiertas u otras actividades.
Koldo Nabaskues piensa que el Eve puede disponer de exposiciones itinerantes para mostrar durante esos días.

Azkenik, Ingurumen zinegotziak berriro ere esan du bidal ditzatela mezu elektronikoak egoki irizten dieten proposamenekin, foroaren hurrengo bilera maiatzaren 27an izango baita, Aste Berdea egingo den egunetatik oso gertu, eta ez baitute ia astirik izango gaiari heltzeko.

Finalmente, la concejala de Medio Ambiente insiste en que se envíen por correo electrónico las propuestas que se consideren oportunas, ya que en la próxima reunión del foro a celebrar el 27 de mayo, muy cerca de las fechas de Aste Berdea, apenas habrá ya tiempo para abordar el tema.

**Bidegorrien Plan Bereziaren Aurrerapena**

**Avance del Plan Especial de Bidegorris**

Hirigintza zinegotzi Joseba Arregui jaunak Bidegorrien Plan Bereziaren Aurrerapenaren berri eman du, plano batzuen bidez. Plano horiek gero foroko kideei banatuko zaizkie. Bidegorrien gaiari dagokionez, esan du Getxok 33 kilometro bidegorri izango dituela 2011n. Plan horrek herria bizikletaz zeharkatzeko aukera jasotzen du, eta 21 ikastetxetara, 7 kirolgunetara, 6 metro geltokitara eta herriko plaza publiko nagusietara iritsi ahalko da. Horrez gain, etorkizunean Andra Mariren hirigintza diseinuan barneratzen diren proposamenak erantsi ahalko dira. Hirigintza zinegotziak adierazi du plan horrek jauzi kualitatiboa ekarriko

El concejal de Urbanismo, D. Joseba Arregui, informa sobre el Avance del Plan Especial de Bidegorris acompañándose de unos planos que se pasarán a los miembros del Foro. En este sentido, viene a decir que Getxo contará con 33 kilómetros de bidegorri en 2011. Dicho plan contempla la posibilidad de atravesar el municipio en bicicleta y se podrá llegar a 21 centros de enseñanza, 7 zonas deportivas, las 6 estaciones de metro y las principales plazas públicas del municipio, además de las propuestas que se incorporarán a futuro en el diseño urbanístico de Andra Mari. El concejal de Urbanismo señala que este plan supondrá un salto cualitativo para

duela Getxora; izan ere, orain olgetarako edo aisialdirako erabiltzen da bizikleta, eta gero garraiobide iraunkor, ekologiko eta alternatibo gisa hartuko du jendeak, eta beste helburu batzuetarako erabiliko du, hala nola lanera joateko, ikastetxera joateko, erosketak egiteko edo etxe batetik bestera mugitzeko, hau da, erabilera praktikoa eta egunerokoa emango zaio bizikletari, beste garraiobide batzuen aldean benetako alternatiba izango da, Europan jadanik barneratua dagoen bizikletaren kulturarekin pixkanaka bat egiteko.

Bestalde, jakinarazi du planaren aurrerapena konfiguratzeko Getxoko Udala hizketan aritu dela Leioako Udalarekin (Erromo Leioarekin lotzeko) eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin (bere eskumenen esparruan sartzen den kostako bidegorrirako). Proposatutako aurrerapen horretan, 16 kilometro soilik dagozkio Udalari, eta 4,2 foru garapenari, eta horiek lehendik ere badauden kilometroei erantsiko zaizkie.

Planaren aurrerapenean proposatutako ibilbidearen zati bat datozen hilabeteetan gauzatuko da; izan ere, Errekagane parkea eraberritzeko obraren barruan bidegorria egiteko asmoa dago, Luis López Osések Leioarekin lotzeko proposatutakoaz gain. Bestalde, gobernu-taldeak guztira 300.000 € bideratu ditu bidegorrien sare berrian aurrera egiteko asmoz, aurrerapen izateari utzi eta behin betiko proiektu bihurtzen denerako.

Udalaren asmoa da –adierazi du Hirigintza zinegotziak– proposamen hau oro har herritarren eta garraio iraunkorrarekin eta bereziki bizikletarekin inplikatuta dauden gizarte-eragileen iritzipean jartzea, hala nola Ingurumeneko Tokiko Foroaren iritzipean. Horretarako, planaren aurrerapena ikastetxeetara bidaliko dute, bai eta zikloturisten elkarteetara, Hirigintza Plangintzaren Aholku Kontseilura, Ingurumeneko Tokiko Forora eta beste

Getxo ya que la bicicleta pasará de tener un uso, fundamentalmente, recreativo o de ocio a concebirse como un medio de transporte sostenible y ecológico, alternativo, con otros fines como el acceso al trabajo, los centros de estudio, compras o el traslado entre domicilios, es decir, se posibilitará un uso práctico y cotidiano de la bicicleta como alternativa real a otros tipos de transporte, a fin de incorporarnos progresivamente a la cultura de la bici ya instalada en Europa.

Informa también que, para la configuración del avance del plan, el Ayuntamiento de Getxo ha mantenido conversaciones con el Ayuntamiento de Leioa (para la conexión por Romo con Leioa) y la Diputación Foral de Bizkaia (para el bidegorri de la costa que se encuentra en su ámbito de competencias). En este avance propuesto, 16 km. son de ejecución municipal y 4,2 de desarrollo foral, que se sumarían a los kilómetros ya existentes.

Parte del trazado propuesto en el avance del plan se ejecutará en los próximos meses ya que la obra de reforma del parque de Errekagane, contempla la habilitación de un bidegorri, además del planteado en Luis López Osés para conectar con Leioa. Así mismo, el Equipo de Gobierno ha habilitado para 2008 un total de 300.000 € de cara a seguir avanzando en la nueva red de bidegorris, una vez que deje de ser un avance y se convierta en un proyecto definitivo.

Es intención del Ayuntamiento -comenta el concejal de Urbanismo- someter esta propuesta a la opinión de la ciudadanía en general, y de los agentes sociales implicados en el transporte sostenible y la bicicleta en particular, como es el Foro Local de Medio Ambiente. Para ello se remitirá el avance del plan a centros de enseñanza, a las asociaciones de cicloturistas, al Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico, al Foro Local

hainbat tokitara ere.

Horren ostean, galderak, komentarioak eta beste izan dira Bidegorrien Plan Bereziaren Aurrerapenari buruzko proposamena dela eta. Hala, laburbilduz, honako kontu hauei buruz aritu dira:

Dimas Ramos jauna. Galdetu du zenbateko abiaduran joan daitekeen bidegorrian; izan ere, erabilera mistoa izango duenez, gune batzuetan arriskutsua izan liteke txirrindulariak eta oinezkoak batera ibiltzea, hala nola Torrene kalean.
Denak bat datoz ezinbestekoa dela lehenengo egunetik jendea heztea; kontu kulturala da, hezkuntzari dagokiona, eta egin beharreko lana luzea da.
Jose Almeida jauna. Galdetu du plan horrek zenbateko kostua izango duen aparkalekuei dagokienez. Hirigintza zinegotziak erantzun dio oraindik ez daudela fase horretan, aurrerapen-fasean daudela, baina ez dela gehiegizkoa izango.
Bestalde, Almeida jaunak adierazi du Azkorri eta Galea inguruan jendeak nahiago duela bidezidorretatik joan bidegorriaren ibilbidetik baino.
Patxi Díaz jaunak bidegorriei beldurrik ez izateko esan du, baldin eta mugikortasun iraunkorra nahi badugu. Batzuetan arriskutsuagoak dira gurasoek egiten dituzten gauzak seme-alabak autobusean uzten dituztenean.
Esan du txirrindulariak ezin direla behartu gidariek egiten ez dutena egitera; haurren segurtasun-tartea helduena baino txikiagoa da, baina ezin gara beldurtu.

Koldo Nabaskues jauna. Adierazi du eraiki daitezkeela bizikleta eskuragarriak dituzten disuasio-aparkalekuak ere.
Carlos Arana jauna. Azaldu du Bartzelonan guneka har daitezkeela bizikletak. Komentario horren babesean, Hirigintza zinegotziak jakinarazi du hurrengo egunean Bartzelonara joatekoa dela, Getxoko Udalaren ordezkari gisa, tokian bertan hiri horretako bidegorriak nolakoak diren ikusteko asmoz.

de Medio Ambiente, etc.

Acto seguido se suceden las preguntas comentarios, etc. sobre la propuesta de Avance del Plan Especial de Bidegorris. Así, y de forma resumida se comentan las siguientes cuestiones:

- D. Dimas Ramos. Pregunta a qué velocidad se puede ir por el bidegorri, ya que al ser de uso mixto hay zonas en las que puede ser peligrosa la coexistencia de ciclista y peatón como por ejemplo en la calle Torrene.
Se coincide en que es primordial educar desde el primer día; se trata de un tema cultural, de educación y que la labor es larga
- D. José Almeida. Pregunta el coste de dicho plan en plazas de aparcamientos. El concejal de Urbanismo le responde que todavía no se está esa fase, estamos en la de avance, aunque no es agresivo.
También apunta el Sr. Almeida que en la zona de Azkorri y La Galea, la gente prefiere circular por los senderos que por el trazado de bidegorri

- D. Patxi Díaz invita a perder el miedo a los bidegorris si queremos una movilidad sostenible A veces resultan mas peligrosas actividades que realizan los padres cuando dejan a sus hijos en el autobús
Dice que no se puede obligar a los ciclistas a hacer lo que no hacen los conductores; el espacio de seguridad de un niño es menor que el de un adulto pero no tenemos que asustarnos.

D. Koldo Nabaskues. Comenta la oportunidad de construir aparcamientos disuasorios que cuenten con bicicletas disponibles
- Carlos Arana. Informa de que en Barcelona se puede coger bicicletas por tramos. Al calor de este comentario, el concejal de Urbanismo informa de que al día siguiente va a Barcelona una representación del Ayuntamiento de Getxo con intención de conocer “in situ” la

Bestalde, adierazi du oinezkoentzako pasabideen aurrean zutoinak eta semaforoak jartzen dituztela, lehentasuna nork duen lehenago abisatzeko.
Pedro Barrenetxea jaunak hartu du hitza, eta zoriondu egin ditu proiektu honekin erakutsi duten ausardiagatik eta bizikletaren bulkadarekin jarraitzeko apustuaren alde egiteagatik.
Azkenik, iradoki du gune zailik ez dadila egin; autoentzat kale zuzenak egiten dituzte, eta, aldiz, bidegorrien zati batzuk burugabekeria hutsa dira.

realidad de los carriles bici en esa ciudad.
Apunta asimismo que se colocan postes y semáforos delante de pasos de peatones, para avisar con antelación la prioridad
- D. Pedro Barrenetxea toma la palabra para felicitarles por la valentía demostrada con este proyecto y apostando por que se continúe con el impulso de la bicicleta.
Por último sugiere que se eviten los tramos mas costosos; se les hacen calles rectas a los coches y en cambio hay tramos de bidegorri que son un auténtico despropósito.

**4.- Galderak eta eskaerak**

Patxi Díaz jaunak adierazi nahi du bere ustez foro honetan gutxi eta oso modu pobrean hitz egiten dutela hirigintzari buruz. Iraunkortasunari buruzko foroek ezin utz dezakete alde batera halako gai garrantzitsua, nahiz eta jadanik eratu den Hirigintza Plangintzari buruzko Aholku Kontseilua. Hor zer gertatzen den entzun nahiko luke, eta aldi berean entzun ditzatela. Hirigintza zinegotziak erantzun dio gonbidatzen duten guztietan joango dela foro horretara, hirigintzarekin lotutako gaiei buruzko informazioa ematera eta eztabaidatzera.
Proposatu dute forora ez ditzatela ekarri proposamen konkretuak baietz edo ezetz esateko, baizik eta aurrerapen-fasean ekar ditzatela, foroak bere jarrera hartzeko modua izan dezan gatazkatsuak izan daitezkeen gai horietan.
21:15ean, bukatutzat eman dute bilera.

**4.- Ruegos y preguntas.**

D. Patxi Díaz quiere hacer constar que en su opinión, en este Foro el Urbanismo se trata poco y de forma pobre;. Un Foro de Sostenibilidad no puede dejar de lado este tema tan importante, aunque se haya creado el Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico. le gustaría oir lo que sucede ahí y a la vez que se nos oiga; El concejal de Urbanismo le responde que siempre que se le invite acudirá a este foro para informar y discutir temas relacionados con el urbanismo.
Plantean que no lleguen al Foro las propuestas concretas para decir sí o no, sino que las traigan en fase de avance para que el Foro pueda posicionarse, en aquellos temas que sean conflictivos
A las 21:15 horas se da por finalizada la reunión.